

# 2017KO TOLOSAKO JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIAREN EMAITZEN TXOSTENAREN

#tolosakoñauteriak



## LABURPENA



# AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	3
LAN PROZEDURA.....	3
ANTOLAKUNTZA.....	3
Aurrerapenak eta Erronkak.....	5
KOMUNIKAZIOA.....	5
Kartela.....	6
Egitaraua eta prentsa oharrak.....	6
Udaleko Agerraldiak.....	7
Aurrerapenak eta Erronkak.....	7
Egitaraua.....	8
Txupinazoa.....	8
Musika kontzertuak.....	9
Aurrepaenak eta erronkak.....	12
INDARKERIA.....	13
Tolosak ezetz! Dio kanpaina.....	14
Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa.....	14
Aurrerapenak eta erronkak.....	14
BALORAZIOA ETA ONDORENGO URRATSAK.....	14
Behatoki ereduak eta tresnen balorazioa.....	15
Komunikazioaren erronka.....	15
Hurrengo epealdirako urratsak.....	15

## **AURKEZPENA**

Tolosako udalak 2010 urtetik darama jaietan berdintasun ikuspegia txertatzen era aktibo batean. Urteetako prozesuari jarraipena eta egonkortasuna emateko asmoz, 2016 urtean, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia diseinatu zen. Behatokiaren helburua berdintasun politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzalegoak izan daitezzen. Helburu hau betetzeko, Behatokiaren funtzionamendu tresna bat diseinatu zen, Berdintasun sailaren lidergoarekin eta gainontzeko udal departamentuen partaidetzarekin batera.

2017 urtean, Behatokia lehen aldiz martxan jarri da. Urte honetan, diseinatutako eredia eta tresnen frogia egitea planteatu da, eta hemendik ateratako ikaspenetan oinarrituta, beharrezko hobekuntzak egin ahal izango dira. Behatokia epe luzeko ikuspegian, hobekuntza iraunkorrean eta progresibotasunen oinarritzen da.

Behatokiaren lana bi norabidetan erakusten da dokumentu honetan: batetik, dagoeneko Tolosako udalak berdintasunaren alde egiten duen lana balioan jartzen da, eta bestetik, lanketa honetan sakontzeko esku-hartze proposamenak azaltzen dira. Gainera, hartzaile izango diren departamentuetako teknikari eta politikariak sentsibilizatzeko bokazioa ere badu.

Dokumentu honek ondorengo egitura du: lehendabizi Behatokiak jarraitutako lan-prozedura azaltzen da; ondoren Behatokiak aztertutako lau esparruak lantzen dira: komunikazioa, antolakuntza, egitaraua eta indarkeria sexista; eta azkenik, etorkizunera begira eman beharreko urratsak azaltzen dira, ondorio orokor moduan.

## **LAN PROZEDURA**

*Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Oinarri dokumentuan honen funtzionamendu eredia eta tresnak azaltzen dira, eta horietatik abiatuta jarri da martxan 2017 urteko lanketa. Lau faseko prozesua planteatzen da:*

- Plangintza: 2017 epealdiko San Joan jaietan aztertuko denaren aurreikuspena egin da.
- Informazioa jaso: departamentu bakoitzari beharrezkoa den dokumentazioaren eskaera egin zaie. Departamentu bakoitzaren ezaugarriei eta beharrei egokitutako tresnen eta komunikazio bideen bitartez.
- Analisia: Informazio guztia eskuratu ondoren, analisia egin da, lau atalen arabera: komunikazioa, egutegia, indarkeria sexista eta antolakuntza.
- Komunikazioa: Ateratako emaitzak komunikatzeko, hartzaileari egokitutako kanal desberdinak erabiltzea aurreikusten zen.

## ANTOLAKUNTZA

Helburua Tolosako jaien antolakuntzaren inguruan genero analisia egitea da. Edozein jardueraren prestakuntza eta antolakuntzaren esparrua eragiteko esparru klabeak dira, hor baitago erabaki ahalmena. Zentzu honetan, batetik, udal eragileak daude (Jaiak Saila, maila politiko eta teknikoan, eta Alkatetza); eta bestetik, herri eragileak.

Behatokiak 2017 epealdiko San Joan jaiak aztertzeko, udal eskumenaren baitan dauden egituretan zentratuko da: Jaiak Departamentua eta Jai Bilerak. Etorkizunera begira, beste jai batzuen antolakuntza (auzoetarako jaiak, azoka bereziak...) edo elkarteen egitura eta jarduna aztertzea aurreikusten da, errealitatearen argazki osotuagoa izateko.

Ondorengo eskeman azaltzen da Behatokiak aztergai dituen alderdiak eta hauen betetze maila:

4.1. Udala: jaiekin lotura duten departamentuak		BAI/EZ
Jaien arduradun instituzionalen genero analisia	Jaien antolakuntzan dauden politikariak eta beraien sexua	BAI
	Genero gaietan formakuntza duten teknikariak eta politikariak	BAI
Jaien antolakuntzan parte hartzen duten sailak eta berdintasun sailaren arteko harremana	Jaiak eta Berdintasun sailen arteko koordinazioa eta elkarlana	BAI
	Kultura eta gainontzeko departamentuak eta Berdintasun sailen arteko koordinazioa eta elkarlana	BAI
	Berdintasunarekin lotura duten egindako jarduerak	BAI
Jaiak antolatzen duten departamentuen eta jaien aurrekontua	Jaiak departamentuaren aurrekontua	EZ
	Kultura departamentuaren aurrekontua	EZ
	Berdintasuna departamentuaren aurrekontua	EZ

4.2. Herri eragileak: jaiak antolatzen dituzten elkarreak		BAI/EZ
Elkarteen helburuak, partaideak, ordezkariak jaien antolakuntzan eta honen genero analisia	Emakume eta gizonen kopuruak elkarreetan	EZ
	Elkarteen ordezkariak jaien antolakuntzan	BAI
	Elkarteen helburu orokorrak eta genero analisia	EZ
Elkarreek jaietan antolatzen duten jarduerak eta honen genero analisia	Jaietan antolatzen dituzten jarduerak eta genero analisia	EZ
	Elkarteei emandako diru-laguntza kopuruak	EZ

Elkarteek jaietan jasotzen duten diru-laguntza kopuruak eta honetarako baldintza eta irizpideak	Elkarteei emandako diru-laguntzetako baldintzak eta irizpideak	EZ
---	--	----

4.3. Jai Bilerak		BAI/EZ
Jai bileretan emakume eta gizonen partaidetza kuantitatiboa eta kualitatiboa	Emakume eta gizonen kopurua, sexuaren arabera	BAI
	Emakume eta gizonen partaidetza, rolak eta erabaki-ahalmena bileretan	BAI
Jai bileren funtzionamendua	Bileren funtzionamendua: deialdi era, egun eta ordutegiak, kontziliazio erraztasunak...	BAI
Berdintasun gaien eta berdintasun teknikariaren presentzia jai bileretan	Berdintasun teknikariaren presentzia	BAI
	Berdintasun gaien presentzia: jaien antolakuntzan, jaien balantzean.	BAI

### Aurrerapenak eta Erronkak

Ondorengo lerroetan, antolakuntzaren atalari dagokion balorazioa egingo da.

#### Aurrerapenak

- Jaien antolakuntzan maila politikoan emakumeen presentzia altua da, eta berdintasun gaietan oinarritzko prestakuntza jaso dute.
- Jaiak eta berdintasun sailen arteko koordinazioa eta elkarlana gero eta gehiago egonkortzen doa, eta baita jaietan berdintasun ikuspegia txertatzea ere.
- Jai Bileretako aktetan partaideen sexua jasotzen da.
- Jai Bileretako partaidetza kuantitatiboa parekidea da, orokorrean.
- Jai Bileretan berdintasun politiken berri ematen da.
- Emakume musikari eta talde mistoen zerrenda eguneratua helarazi zaie jaietan parte hartzen duten eragileei, eta Jai Bileran emakume musikarien inguruan hitz egin da.

#### Proposamenak

- Behatokiaren emaitzak aurkeztea eta hedatzea, gaiaren inguruko kontzientziazioan sakontzeko.
- Jaiak eta Berdintasuna sailen arteko elkarlana sistematizatzea.
- Jai Bileretan herritarren eta elkarteen ordezkarien emakumeen partaidetza baloratzea.
- Jai Bileren partaidetza ireki, emakumei partaidetzarako erraztasunak emanez.
- Jai Bileretan jaien genero analisiaren inguruko hausnarketa sustatzea, jaiekin lotutako erabaki guztietan zeharkako eragina duela ikusaraziz.

## KOMUNIKAZIOA

Komunikazioak berebiziko garrantzia du jaien inguruan transmititzen den irudian. Irudi honetan jaien inguruan dugun ikuskerak baldintzatuko du, eta era berean, neurri kontzienterik jarri ezean, emakume eta gizonen artean ematen diren desberdintasunak erreproduzituko dira. Irudi, mezu eta hizkuntza berdinezaleak eta eraldatzaileak erabiltzean, ordea, ikuskera berriak sortzen dira, eta eragin zuzena dute jaiak bizitzeko izango dugun eran.

Atal honetan analisi dokumentala egin da, testu eta irudien azterketa, alegia. Kartela, egitaraua, prentsa oharrak eta udalaren agerraldi publikoak aztertu dira.

Hauek dira atal honen azterketarako erabilitako Behatokiaren adierazle orokorrak:

<b>1.1. Kartela</b>		<b>BAI/EZ</b>
Kartelaren genero analisia	Hizkuntza, irudi eta eduki sexisten presentzia	BAI
	Emakume eta gizonen presentzia eta rolak	BAI
Kartel lehiaketaren genero analisia	Kartel lehiaketa: oinarriak	BAI
	Kartel lehiaketa: epai-mahaiari emakume eta gizonen kopurua	BAI
	Berdintasun teknikarien presentzia lehenengo galbahean	BAI
	Kartel lehiaketa: partaide kopurua eta sexua	BAI
	Kartel lehiaketa: irabazleak eta sexua	BAI
	Bozkatzaile kopurua eta sexua	BAI

<b>1.2. Egitaraua, prentsa oharrak, web orria eta sare sozialak</b>		<b>BAI/EZ</b>
Egitaraua / prentsa oharrak / web orriaren genero analisia	Hizkuntza, irudi eta eduki sexisten presentzia.	BAI
	Emakume eta gizonen presentzia eta rolak.	BAI
	Genero berdintasuna eta indarkeria sexistaren aipamena.	BAI
	Berdintasunaren inguruan jaietan egindako jardueren eta aurrerapenen aipamena.	BAI

<b>1.3. Udaleko agerraldiak</b>		<b>BAI/EZ</b>
Udal agerraldi publikoen genero analisia	Emakume eta gizonen kopurua eta kokapena.	BAI
	Berdintasun saileko ordezkari politikoaren presentzia eta kokapena.	BAI
	Hizkuntza, irudi eta eduki sexisten presentzia.	BAI
	Genero berdintasuna eta indarkeria sexistaren aipamena.	BAI
	Berdintasunaren inguruan jaietan egindako jardueren eta aurrerapenen aipamena.	BAI

## **Kartela**

Kartelaren aukeraketaren atzean jaien inguruan eman nahi den irudia dago, eta horregatik, berdintasuna bermatzea beharrezkoa da. 2017ko San Joan jaietako kartelean, ez dago gizaki irudirik.

Kartelaren aukera lehiaketa bitartez egiten da. Hemen aurrerapen handiak eman dira azken urteetan kartelak genero aldetik desberdintasunak irudikatzen ez dituela bermatzeko. Horretarako lehiaketako oinarrietan hainbat klausulak azaltzen dira

Kartel epaimahaia, beraz, parekidea izan da. Gainera, berdintasun teknikariek parte hartu dute lehengo galbahean, kultura saileko eskaera bati erantzunez. Aurreneko urtean aholkulari moduan egon zirela kontuan hartuta, aurrerapen bat eman dela esan dezakegu.

## **Egitaraua eta prentsa oharrak**

Alderdi honetan hizkuntza, irudi eta eduki ez sexista eta ez homofoboaren presentzia bermatzean jartzen da bereziki arreta; baina honetaz gain, neutrotzat jotzen diren mezuek ere kutsu androzentrikoa dutela kontuan hartu behar dugu, eta hauen inguruko kontzientzia lantzen jarraitu behar dela, eredu berritzaileak irudikatuz.

Berdintasun sailak egitarauaren errebisioa egin du eta hizkuntza ez sexista bermatzeari dagokionez, aurrerapenak eman dira. Berdintasun sailetik egitarauan erabiltzen diren argazkien inguruko analisia egin ondoren, emakume eta gizon irudiez gain, irudikatzen denari ere arreta jarri behar zaio: zein roletan dauden edota irudikatzen den jarduerak zein genero kutsu duen.

Alkatearen agurrean ez da aipamenik egiten jaietan eraso sexistak gaitzestearen inguruan, baina "Gogoan izan" atal bat dago non "Tolosak, EZETZ dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano" kanpainaren berri ematen den. Halaber, indarkeriaren aurkako eskuaren irudia azaltzen da orrialde batean koadrila eguneko egunean.

## **Udaleko Agerraldiak**

Udalak publikoki erakutsi nahi duen mezuari oso lotuta egongo da agerraldi publikoetan hartzen duen irudia. Maila honetan, genero berdintasunaren aldeko jarrera erakusteko oso garrantzitsua da ordezkariak parekidea egotea. Aurtengo irudi parekidea errepikatzen dela bermatu beharko litzake urtero.

## **Aurrerapenak eta Erronkak**

Komunikazioaren atalean udalak irudi, mezu eta eduki ez sexisten kontra hartutako neurri eta irizpide orokorrak islatzen dira, eta beraz, gai honetan Tolosak badu dagoeneko urteetako ibilbidea. Hala ere, urtez urte neurriok mantentzen direla eta identifikatutako hutsuneei aurre egiteko berriak integratzen direla bermatu behar da.

### Aurrerapenak

- Kartel lehiaketako oinarrietan berdintasun irizpideak txertatuta daude, epaimahaia parekidea da eta berdintasun teknikariek parte hartu dute aholkulari moduan.
- Lehiaketako herritarren botoan bozkatzaileen “sexua” (3 lauki) agertzen da, eta aktan jasotzen dira emaitzak sexuaren arabera.
- Komunikazio euskarri guztietan kontuan hartzen da berdintasunezko hizkuntza.
- Egitarauko alkatearen agurrean berdintasun arloan jaietan emandako aurrerapenak aipatu eta baloratzen dira.
- Egitarauan indarkeria sexistaren gaia aipatzen da: “Joka sano” kanpaina eta larrialdietako telefonoa. Horrez gain, Ekainaren 28 LGBTQ eskubideen eguna aipatzen da.
- Udal agerraldia parekidea izan da eta udal komunikazio euskarrietan berdintasunaren alde eta eraso sexisten kontrako jarrera erakusten da.

### Proposamenak

- Egitaraurako aukeratzen diren irudien inguruko genero irizpide batzuk lantzea, eta hauek aplikatzeko barneko prestakuntza ematea.
- Behatokiaren jarduna eta aurreneko urteetan ateratako ondorioen berri ematea, era sistematizatu batean.

### Egitaraua

Jaien egitaraua jaien inguruko genero hausnarketa egiterako orduan gai zentrala da. Atal honetako planteamendua jaien egitarauan dauden jarduera batzuk aukeratu eta aurretiaz zehaztutako irizpideen arabera hauen genero analisia egitea da.

2017 epealdirako San Joan jaietako txupinazoa eta kontzertuak aztertu dira.

Hauek dira jaietako jardueren genero analisirako irizpide orokorrak:

Ekintzaren analisia		BAI/EZ
Ekintzaren kokapena	Data	BAI
	Asteko eguna	BAI
	Ordua	BAI
	Eguneko momentua	BAI
	Iraupena	BAI
	Espazioa	BAI
Ekintzaren izaera	Tipologia	BAI
	Erritual mota eta formaltasun maila	BAI
	Udal ordezkarien presentzia	BAI



	Genero analisia	BAI
Partaideen analisia	Deskribapena	BAI
	Sexua eta profila	BAI
	Partaidetza maila	BAI
Ikusleen analisia	Deskribapena	BAI
	Sexua eta profila	BAI
	Partaidetza maila	BAI
Aurrekontua	Zenbatekoa	BAI
	Jatorria	BAI
	Departamentuaren aurrekontu osoarekiko eta jaietako aurrekontu osoarekiko	BAI
Antolakuntza	Antolatzailea eta bere profila	BAI
	Eragile kolaboratzailea eta bere profila	BAI

## Txupinazoa

### *METODOLOGIA*

Jarduera honen analisirako bi iturri nagusi erabili dira: behaketa, eta bigarren mailako datuen analisia.

### *JARDUERAREN IZAERA ETA ANALISIA*

Txupinazoa ohorezko ekintza moduan kategorizatzen da, herriak sinbolikoki herrikide bat/talde bat egindako lanagatik omentzen duelako. Kasu honetan, Tolosako Udaberri Dantza Taldea omendu zen.

### *PARTAIDETZAREN ANALISIA*

12 emakume eta 15 gizonen osatutako taldeak ordezkatu du. Diskurtsoa eta suziria mutil batek bota zuen, taldeko kideek horrela erabakita.

Presentzia instituzionala ere nabarmena izan zen eta parekidetasuna mantendu zen.

Txupinazoa amaitutakoan, erraldoiak eta buruhandiak sartu ziren plazara, Erraldoiak 3 gizon-emakume bikote dira, bikote eredu heterosexual normatiboa irudikatuz dantzatzeko momentuan. Gizonezko gazteak izaten dira erraldoiak dantzan jartzen dituztenak. Dultzaineroak gizonak izan ziren.

## **ANTOLAKUNTZA ETA AURREKONTUA**

Tolosako Udaberri Dantza taldea omentzea, udal gobernuko politikarien proposamena izan zen, eta Jai bilerako kideek beraien onespena eman zuten.

## **BERDINTASUN IKUSPEGITIK ONDORIOAK**

Lehendabizi, pregoilaria izango den taldearen aukeraketa aztertu beharko litzake. Tolosako Udaberri Taldea udalak aukeratutako taldea izan zen, eta genero aldetik, mistoa den arren, dantza tradizionalaren inguruan mutilen protagonismoa handia izaten jarraitzen du. Honen adibide, bordondantzariak ditugu, zeinek barne-hausnarketa baten ondorioz, nesken partaidetza hazteko irizpideak jartzen ari diren azken urte hauetan. Aurrerapen hau oso esanguratsua da.

Bestalde, guraso talde batek oso feminizitatuko jarduera bat omentzea proposatu zuen, soinketa erritmikoa, alegia. Orokorrean, emakumezko gutxiago omentzen direla jakinda, eta egiten denean, era indibidualizatuan egiten dela kontuan hartuz, aukera paregabea litzake neskek taldean, eta kirolaren munduan egiten duten ekarpenak balioan jartzeko.

Bestalde, Udaberri Dantza Taldea mistoa izanda ere, mutil bat izan zen diskurtsoa irakurri eta suziria bota zuena. Nahiz eta haien irizpidea izan, udalak protagonismo hau nesken esku uztea ala neska-mutilen artean banatzea proposatu dezake.

Azkenik, aipatzekoa da, erraldoiek eta buruhandiek irudikatzen duten eredu heterozentrista eta maskulinoa. Hemen ere, eraldaketa txikien bitartez eredu aske eta berdinzaleagoak erakusteko apustua egin daiteke: erraldoi mutilak elkarrekin nahastuta dantzatzea, edo emakumezko buruhandiak.

## **Musika kontzertuak**

### **METODOLOGIA**

Analisi bereziki kuantitatiboa egin da, egitarauan oinarrituta eta udaleko Jaiak Departamentuak eskatutako datuen bitartez. Jai bilerako aktak ere aztertu dira.

Datu hauek osatu eta hausnarketa aberasteko helburuarekin, jai teknikariei galdetegi bat bidali zitzaion eta zenbait bilera egin dira berarekin erantzunak zehazteko.

### **EKINTZAREN KOKAPENA**

Musika kontzertuak jaietako egitarauan oso presente daude. 2017 urtean, guztira 24 musika talde eta bandek jo dute Tolosako San Joan jaietan.

### JARDUERAREN IZAERA ETA ANALISIA

Musika jarduerak jaien erdigunean daude eta herriaren ondareari eta identitateei ere oso lotuta. Tolosako kasuan, kale musika eta jaiaren artean lotura estua dago.

Gazteei zuzendutako musikak arreta berezia merezi du, gaueko kontzertuak dira gehienetan, eta estilo desberdinak gurutzatzen dira. Gazteen identitateak aisialdian egiten dutenari lotuta eraikitzen dira, eta haien erreferente nagusiak ere esparru hauetan dituzte: musikariak, kirolariak... Baina sektore hauetan, gizarteko beste esparru batzuetan ematen diren hierarkizazio eta balore sozialak antzematen dira, eta generoari dagokionez, oraindik oso maskulinizatuta daude, erreferente gehienak gizonezkoak direlarik.

### PARTAIDETZAREN GENERO ANALISIA

2017 urteko San Joan jaietan jo duten musika taldeak aipatuko ditugu, eta bakoitzean, zenbat emakume eta gizonek parte hartu duten hurrengo taulan ikusi daiteke:

	Neskak	Mutilak	Guztira
Ingo al deu?		4	4
Hesian	2	3	5
Ziribuilo		1	1
Maitane eta Xabi	1	1	2
Izaro	1	3	4
Mursego	1		1
Enemigos Intimos	2	2	4
Trakets		4	4
Esne Beltza		5	5
Eztanda		4	4
TRP		4	4
Rockalean		4	4
Traka Traka		4	4
Kalean		10	10
Iraunkorrak		10	10
Tolosako txistulariak		4	4
Iruñeako txistulariak		4	4
Tolosako dultzaineroak	1	3	4
Musika eskolakoak	9	39	48

Musika banda	10	32	42
Mulambo	5	12	17
Isidro Larrañaga Musika Orkestra	12	8	20
Batukada Feminista	30		30
Bonberenea Txaranga	2	18	20
<b>GUZTIRA</b>	<b>76</b>	<b>179</b>	<b>255</b>

Taldeen %41,66 mistoak dira, gizonez soilik osatuak %50a eta emakumez soilik %8,3. Emakumez soilik osatutako bi talde daude, Batukada Feminista eta Mursego.


Mistoak diren taldeen igoera nabarmena egon da aurten, eta hau datu oso positiboa da. Tolosako kasuan, oso adierazgarria da txaranga eta kale musikaren eragina, eta hauetan, orokorrean talde oso handiak egoten dira, non emakumeen partaidetza nabari baxuagoa izanda ere, talde misto izaera hartzen duten. Beste musika estilo batzuetan, emakumeak abeslari moduan egon ohi dira.

Gaueko kontzertuak eta gazteei zuzendutako gehienak, gizonez soilik osatutakoak dira. Honek agerian uzten du belaunaldi berrietan egoera oso motel aldatzen ari dela.

Musikarien kopuru totala sexuen arabera berezituta 2017 urteko San Joanetako jaietan musika arloan aritutako guztien %70,19a gizonezkoak izan dira eta %29,8a emakumezkoak. Agerian gelditzen da, beraz, talde mistoak igo arren, emakumeen presentzia motelago handitzen ari dela.



Grafikoa 1: 2017 urteko San Joan jaietako musika ikuskizunetan emakume eta gizonen kopuruak



Grafikoa 2: 2017 urteko San Joan jaietako musika taldeen izaera emakume eta gizonen konposaketaren arabera

Batukada Feminista, Tolosako kaleetan parte hartzen duen 4. urtea da, eta dagoeneko erreferente bihurtu da. Talde hau emakumez soilik osatua dago eta ikuspegi feminista du.

Genero azterketa egitean ezin gara kideen sexuaren analisisira mugatu. Interesekoak izango liratekeen beste aztergai batzuk ere aztertu beharko lirateke, besteak beste: musikariek eszena toki gainean duten jarrera eta espazioaren erabilera; jotzen dituzten musika instrumentuak; komentarioak eta keinuak, eta hauen izaera homofobo edo sexista, izatekotan; abestien letrak, etab.

### **ANTOLAKUNTZA ETA AURREKONTUA**

Musika taldearen aukeraketa era kolaboratzailean egiten da: Ez dago musika kontzertuen aukeraketarako irizpide sistematizaturik, gustuak eta aurrekontuen araberakoa da gehien bat.

Musika aurrekontuari dagokionez, jaietako aurrekontu altuena eramaten duen atala izaten da.

2017ko San Joanetan, 6 taldek kobratu zuten katxeta: Hesian, Enemigos Íntimos, Elektrotxaranga, Esne Beltza, Izaro eta Mursego. Baina ohikoa den moduan, talde ezagun eta garestiena, Esne Beltza, gizonez bakarrik osatuta dago.

Beste 10 bat talde eta musikaririk kobratu dute musika jotzeagatik, edo horretarako beharrezkoa den ekipoa prestatzeko. Eta beste talde batzuek, erabat doako lana egin dute. Hauen artean dugu emakumez soilik osatutako talde bakarra, Batukada Feminista.

### **BERDINTASUN IKUSPEGITIK ONDORIOAK**

Datu kuantitatiboak erreparatuz, musika kontzertuetan nesken partaidetza hazi bada ere, oraindik desberdintasun nabarmenak antzematen dira. Alderdi positibo moduan, neska bakarlariak, kantautoreak eta Batukada Feminista ditugu, eta erronka moduan, neska taldeak eta genero eredu hegemonikoak iraultzen dituztenak egun nagusietako gaueko kontzertuetan egotea.

### **Aurrerapenak eta erronkak**

Atal honetan Txupinazoa eta Musika kontzertuei buruzko ondorio orokorrak azalduko dira.

#### **AURRERAPENAK. TXUPINAZOAN**

- Omendutako taldea dantza talde misto bat izan da.
- Txupinazoko partaidetza nahiko parekidea izan da.
- Publikoaren jarrera aktiboa izan da eta ez da genero desberdintasunik nabarmendu hauen rol eta jarreraren artean.

#### **AURRERAPENAK. MUSIKA KONTZERTUETAN.**

- Musika taldeen %41,6 mistoak izan dira, eta aurreko urtearekiko igoera nabarmena egon da.
- Batukada Feministak laugarren urtez hartu du parte San Joanetan.
- 2 emakumezko kantautorek abestu dute eta biek katxeta kobratu dute.

### PROPOSAMENAK. TXUPINAZOAN.

- Omenduko den taldea mistoa izatekotan, udaletik ondorengo eskaera egitea: emakumeen protagonismoa lehenestea eta pregoilaria eta suzeria botako duena emakumea izatea.
- Omendutako taldearen barnean, emakumeen partaidetza hazteko lanketa edo aurrerapena eman badira, azaltzeko eskaera egitea.
- Emakume buruhandien irudiak sortzea.

### PROPOSAMENAK. MUSIKA KONTZERTUETAN.

- Musika eremuan azterketa sakonago bat egitea.
- Jai Bileretan kontzertuei buruz hausnartzean, genero ikuspegia eta emakumeen partaidetzaren gaia txertatzea.
- Udalak emakume musikarien partaidetza handitzeko irizpideak zehaztea.
- Herriko txarangei emakumeak kontratazeko pizgarriak eskaintzea.
- Berdintasun irizpideak txertatzea musika ikuskizunen kontratazioetan.
- Batukada Feminista diruz ordaindutako ekimena izatea, eta sinbolikoki, beraien partaidetza eskertu eta omentzea.
- Udal Musika Eskolarekin batera emakume musikarien partaidetza hazteko sentsibilizazio prestakuntza garatzea.
- Iruñako txistulariei emakume txistulari bat ekartzera gonbidatzea.

## INDARKERIA

Indarkeria sexistaren gaia jaietan oso presente egon izan da azken urteetan: Tolosa aitzindaria izan da gai honetan, eta indarkeria sexista jaien testuinguru zabalago batean kokatzeko gaitasuna izan du.

Bi lan-ildo nagusi garatu izan dira: sentsibilizazioa eta eraso kasuetan, erantzuna. Behatokiak ere bi atal hauek aztertu ditu, ondorengo aldagaien bitartez:

3.1. "Joka Sano" kanpaina	BAI/EZ	
"Tolosako EZETZ!/Joka Sano" kanpainaren analisi eta balorazioa	Espazio berezia jarri den kopurua	BAI
	Komunikazioa: egitarauan, web orrian, karteletan, pegatinak...	BAI

<b>3.2. Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa</b>		<b>BAI/EZ</b>
Sexu-erasoen jarraipena eta anlisia	Sexu erasoen jarraipena: gertaera kopurua, egoeraren deskribapena eta emandako erantzuna.	
Protokoloaren egoeraren deskribapena eta balorazioa	Protokoloaren egoera: egina, martxan, partaideak...	BAI
Protokoloaren aktibazioaren ondoren egin beharreko jarraipena eta balorazioa	Protokoloa aktibatzen den bakoitzean: egindakoaren deskribapena (adierazpen instituzionala, deialdi publiko bateratua...)	

### **Tolosak ezetz! Dio kanpaina**

2017 urteetako kanpaina *Tolosak EZETZ! dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano.* izan da. Puntu lilak eta "Tolosak EZETZ!" eskua banatu zaie herriko ostalari eta merkatarietara beraien establezimenduetan jarri ditzaten. Gainera, herrian zehar dauden panel informatiboetan mezu berdinak zabaldu dira eta larrialdietarako telefono zenbakia ere jarri da. Kultur Etxeko balkoian ere, pankarta jarri da. Jarduera berritzaile moduan, jai berdinzaleen aldarri den bideo bat ere egin da.

### **Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa**

2017an "Udal zerbitzuen betebeharrak" protokoloa jaien testuingurura egokitu da. Protokoloan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar diren azaltzen da. Protokolo espezifiko honen bitartez eragile desberdinen jarduna arautu da. Protokoloa egiterako orduan, Mugimendu Feminista eta emakume elkarteetako kideek ere parte hartu dute, eta beraz, adostasun zabal batekin egin dela esan daiteke. Berdintasun teknikariek prozesuaren eta emaitzaren balorazio positiboa egiten dute.

2017 urteko San Joanetan ez da sexu eraso salaketarik egon, eta beraz, protokolo hau ez da aktibatu.

### **Aurrerapenak eta erronkak**

Eraso sexisten esparruan udal politika nahiko egonkortuta dago, sentsibilizazioaren alorrean bereziki. Egungo erronka nagusiak estrategia berritzaileak txertatzean datza, ikuspegi eraldatzaileago batetik.

#### **AURRERAPENAK**

- Tolosak EZETZ! dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano! kanpaina egonkortzen ari da, eta honen presentzia handitu da.
- "Izan berdinzale! Ez dago alderik! Gozatu Tolosako San Joanak!" bideoa berrikuntza handia izan da.
- Udal protokoloa jai testuingurura egokitu da, inplikaturako eragile guztien arteko elkarlanaren bitartez.

#### **PROPOSAMENAK**

- Eraso sexisten prebentzioan eta kudeaketan urrats bat gehiago eman, emakumeen ahalduak sustatuz.
- Protokolorako Mugimendu Feminista eta Tolosako Emakume Elkarteekin hasitako ibilbideari jarraipena eman, eta gaian elkarlanerako aukera berriak ireki.
- Jabetze Eskolako Autodefentsa Feminista tailerretan, Gazte proiektuan, Beldur Barik/Hi haiz, hi programan eta Rap proiektuan autodefentsaren lanketa burutu, "Tolosak, EZETZ! dio" kanpainaren barruan garatzeko.

## **BALORAZIOA ETA ONDORENGO URRATSAK**

Atal honen xedea alderdi hauen inguruko gogoeta egitea da: Behatoki tresnen balorazioa egiten da lehendabizi, ondoren Behatokiaren azken fasearen inguruko hausnarketa egiten da (*Komunikazioa*, alegia), eta azkenik, aurtengo prozesutik ateratako ondorioetatik abiatuz, eraldaketa proposamenak planteatzen dira.

### **Behatoki eredia eta tresnen balorazioa**

Orokorrean, prozesuaren zein emaitzen balorazio positiboa egiten da. Behatokiaren helburu nagusia jaietan berdintasun ikuspegia modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean inplementatzeko tresna izatea da, eta lehendabiziko urtean helburu hau betetzeko oinarriak ezarri dira. Behatokiak definitutako esparruen analisia egin da, eta hauek komunikatzeko bidean gaude. Era berean, Berdintasun Saila eta jaiekin lotura duten departamentuen arteko harreman eredia zehaztu eta sistematizatzeko urratsak egonkortzen ari dira.

### **Komunikazioaren erronka**

Maila politikoan ere, Behatokiak egiten duen lanaren berri izatea ezinbestekoa da, egitura honen aldeko apustu politikoarekin jarraitu eta indartzeko irizpide politikoak eta baliabideak jarri ditzaten. Teknikari zein politikarientzat, beraz, Behatokiak Tolosan jaietan genero ikuspegitik gertatzen denaren berri eman behar du, kontzientziazioan sakonduz.

Beste maila batean, jaiak antolatzen duten herri eragileen komunikazioa legoke. Zentzu honetan, Jai Bileretan Behatokiaren emaitzak sozializatzea aurreikusten da, eta ahal den neurrian, gainontzeko elkarteei eta Jai Batzordeei ere helaraztea.

Herritarrei dagokienez, komunikazio arin eta positiboa egitea planteatzen da. Helburua herritarrak sentsibilizatu eta udalak egiten duen aurrerapenen berri ematea izango litzake.

### **Hurrengo epealdirako urratsak**

Dokumentu honetan zehar Behatokiaren emaitzak azaldu dira, eta analisi atal bakoitzari dagozkion aurrerapenen zerrenda eta hobekuntza proposamenak egin dira. Guzti hauek dagokion departamentuentzat



baliagarriak izango dira, beraien jardunean genero ikuspegia txertatzeko aurrera pausuak eman ditzaten.

Atal honetan ikuspegi orokor batetik, 2018 urterako Berdintasun Sailak planteatzen dituen lan-ildoak azaltzen dira, 2017 epealdiko emaitzak eta ikaspenak kontuan hartuta. Horrela, Behatokiaren lanketa eta jaietan genero ikuspegia txertatzearen prozesua sendotzen eta errotzen joango da.

Prozesu honetan zehar Berdintasun Saila eta jaietan inplikazioa duten departamentuen arteko elkarlanaren inguruko analisia egin da, eta hobekuntzarako gakoak identifikatu dira. Batetik, esan bezala, maila politikoan, irizpideak zehaztea ezinbestekoa dela ondorioztatu da. Behatokiak bi jardueren analisia egin du *Egitaraua* atalaren baitan, eta beraz, hauetan planteatzen dira hobekuntzak:

- Kontzertuei dagokienez, 2017 urtean aurrerapen nabarmenak eman dira, baina hala ere, parekidetasunetik urruti gaude, eta emandako urratsetan egonkortu eta sakondu beharko litzateke. Neska musikariek zailtasun gehiago dituzte esparru honetan aritzeko, eta beraz, hauen aldeko apustua egitea egoera orekatzeko urratsa litzake. Horretarako, Tolosako udalak hurrengo urteetarako ondorengo irizpideak onartzea proposatzen dugu: gutxienez, musika talde guztien %40 mistoak izatea, eta neska gehiengoa diren taldeak kontratatzea. Batukada Feministarekin jarraitzea ere proposatzen da, baina diruz ordainduta eta sinbolikoki, beraien urte hauetako partaidetza eskertu eta omenduz.
- Txupinazoaren kasuan, ondorengo gogoeta egin da: omendutako taldearen partaidetza nahiko parekidea izan den arren, pregoia eta suziria mutil batek bota du, eta hau izaten da tendentzia ohikoena. Era honetan, taldeen ordezkariak, hitza hartzea eta ospakizunari hasiera ematea gizonen esku gelditzen da gehienetan. Gainera, Udaberri Dantza taldeak bordondantzarien kasuan, emakumeen partaidetza hazteko aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu eta hauek ezagutzera ematea interesgarria litzake. Beraz, hurrengo urteetarako, pregoilaria izango den taldeari udalaren partetik orientabide edo gomendio batzuk helaraztea proposatzen da: pregoia eta suziria botatzeko emakumeak lehenestea eta taldeak emakumeen partaidetzan urratsak eman baditu, hauek balioan jartzea, besteak beste.

Beste maila batean, jaien komunikazioari lotutako esparrua dugu, zeinetan Komunikazio saila eta Berdintasun sailaren arteko harreman jarraikor eta arina ezinbestekoa den. Horretarako, bien arteko komunikazio eredia sistematizatu beharko litzake:

- Komunikazio eta Berdintasun sailek jaien inguruko harreman marko bat zehaztea proposatzen dugu: Egitarauaren aurretiazko lanketa, Jaiak, Kultura eta Berdintasun sailen artean denboraz egitea; egitaraurako irudientzako irizpide batzuk lantzea, eta hauek betetzen dituzten argazkien artxibo bat sortzea; Behatokiaren marka bat sortu eta urtero emaitzak sozializatzeko eredia definitzea (urtero jaietan berdintasun gaietan egindako aurrerapen bat nola azalduko den

adostuz); eraso sexisten kontrako kanpaina komunikazio euskarri guztietan azaltzen dela bermatzea (egitaraua, eta alkatearen agurra, prentsa oharrak, udal agerraldiak, sare sozialak...).

Maila politiko eta teknikoan lanketa guzti hau abiatzea lehentasunezkoa litzake, eta horretarako, beharrezkoak diren baliabideak jarri beharko lirateke martxan: prestakuntza espezifikoak ematea proposatzen da, eta lanketa berdintasun sailetik abiatzen den neurrian, honi dagokion aurrekontua eta giza baliabideak aurreikusi eta egokitzea.

Bestalde, Behatokiaren funtzionamendu irizpideak planteatzerako orduan, progresibotasuna garatzea ardatz bat izan da: Behatokiaren funtzioak, parte hartuko duten eragile kopurua eta inplikazio maila, azterketa esparruak eta sakontasuna, eta aztertzen diren jaien kopurua progresiboki haztea, alegia.

2017 urteko balorazioa eginda, 2018 epealdirako Behatokia ondorengo arloetan hedatzea proposatzen da, progresibotasun printzipio honetan oinarrituta:

- Behatokia erabiliz, 2018ko Inauteriak aztertzea.
- Larramendi Auzo Elkarteko jaiekin elkarlanean jaien genero analisia egitea (2017 urtean egongo den sentsibilizazio saioa abiapuntu moduan baliatuz).
- San Joan jaietan Kirolaren esparrua aztertzea.
- Jai Bileretan Behatokiaren lanketaren berri eman era sistematizatu batean, genero analisia egin eta hausnarketarako momentuak sortuz sentsibilizazioan sakontzeko.
- Musika Eskolako zuzendaritza, ikasle eta gurasoekin musika arlo desberdinetan emakumeen partaidetza zabaltzeko helburuarekin lanketa abiatzea proposatzen da, III. Berdintasun Planean jasota dagoen moduan.

Guzti honekin, Behatokiaren egungo funtzioak sendotu eta berrietara hedatzeko bidean kokatzen gara. Tolosa eredugarria da berdintasun ikuspegia jaietan txertatzean, eta egindako lanak fruituak ematen dituela ukaezina da. Behatokia bera honen adibide adierazgarriena da. Ildo honetan egonkortu eta sakontzeko, konpromiso politiko sendoa eta inplikazio teknikoa behar dira, baina honekin ez da nahikoa: Behatokiak behar dituen giza baliabide eta baliabide materialen azterketa ere egin behar da, eta hauei, era errealista batean erantzun.

Beste erronka bat Behatokia hedatzea eta Berdintasun Saileko beste proiektu batzuekin konektatzea litzake. Prozesu hau baliabideak ondo ezagutu eta optimizatuz egin behar da.